ZELULA GO!

Laborategiko behaketa-orria

1. SAIOA
Landare-zelula
Tipula eta goroldioa

Taldea:		**Data:**	

Eguneko rolak (txandakatu saioz saio):			
Laginaren prestatzailea	Enfokatzailea	Marrazkilaria	Idazkaria

1 HIPOTESIA — Zer ikustea espero duzue?

Zer itxura ote dute tipularen zelulek? Idatzi zuen aurreikuspena.
Eta goroldioaren hostoan? Zer ikustea espero duzue, tipulan ikusiko ez duzuena?

2 MATERIALA — Zer erabili duzue? Zerrendatu.

- ☐
- ☐
- ☐
- ☐
- ☐
- ☐
- ☐
- ☐
- ☐
- ☐

3 PROZEDURA — Zer egin duzue?



A) TIPULA

- ☐ Tipularen azaleko mintz gardena kendu dugu (matxardekin).
- ☐ Portaren gainean zabaldu dugu, tolesturarik gabe.
- ☐ Tindatzaile tanta bat gehitu dugu, eta minutu batzuk itxaron dugu.
- ☐ Tindatzaile-soberakina kendu ondoren, estalkia jarri dugu, barruan aire-burbuilarik utzi gabe.
- ☐ Mikroskopiotik behatu dugu, handipen txikienetik hasita.

B) GOROLDIOA (ez du tindatzailerik behar)

- ☐ Goroldio-hosto txiki bat hartu dugu (patioan edo harresi batean bildua).
- ☐ Portaren gainean jarri dugu, ur-tanta batekin.
- ☐ Estalkia jarri dugu, aire-burbuilarik gabe.
- ☐ Mikroskopiotik behatu dugu: berezko kolorea du; ez dago tindatu beharrik.

4 BEHAKETA — Marraztu ikusitakoa

A · Tipula	B · Goroldioa
	
Marrazkiaren handipena: _____ ×	**Marrazkiaren handipena:** _____ ×

5 IDENTIFIKAZIOA — Zer atal ezagutu dituzue?

Idatzi ezagutu dituzuen atalak (adib.: zelula-horma, mintza, nukleoa, zitoplasma...).
Zer ikusi duzue goroldioan, tipulan EZ dagoena? Zer kolore du? Zertarako balio du?

6 SEGURTASUNA ETA OSASUNA

Taldeak egiaztatu du: markatu bete dena.

- ☐ Materiala txukun eta ordenatuta erabili dugu.
- ☐ Kristalezko piezak (porta/estalkia) kontuz erabili ditugu.
- ☐ Tindagaia (metileno-urdina) neurrian erabili dugu, zikindu gabe.
- ☐ Amaieran materiala garbitu, eta lekuan utzi dugu, eta eskuak garbitu ditugu.

7 ONDORIOAK

Zer ikasi duzue landare-zelulari buruz? Bat dator zuen hipotesiarekin?
Biak landare-zelulak dira. Orduan, zergatik EZ ditu atal berde horiek tipularen azalak ? Pentsatu non hazten den tipula.